

ONDASUNEN ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK ATZERIAN

	Urte arteko aldakuntza tasak					Mila €
	2011	2012				2012
	IV	I	II	III	IV	IV
Esportazioak	24,8	0,2	2,2	-9,7	-6,6	5.419.182
Nekazaritzako produktuak	28,3	16,6	70,2	40,7	39,2	268.442
Prod. mineral eta energetikoak	104,8	-28,9	-32,9	6,5	-8,8	845.724
Produktu kimikoak	-15,8	-22,7	-10,8	-16,6	-7,7	97.982
Plastikoa eta kautxua	21,4	78,3	25,5	-45,2	-14,6	388.739
Papera	-4,6	-3,8	-7,2	4,1	7,9	121.679
Metal arruntak eta manufakturak	7,3	-7,4	-7,6	0,0	-9,4	1.241.962
Makinak eta tresnak	25,4	19,2	7,4	8,0	-3,3	1.162.068
Garraio materiala	25,7	-7,7	9,9	-22,6	-10,3	1.056.919
Bestelakoak	2,0	0,8	-1,9	-10,4	-8,4	235.667
Inportazioak	-2,8	-15,5	-17,4	-3,9	1,2	3.994.701
Nekazaritzako produktuak	-4,3	-5,5	3,0	8,7	1,3	229.811
Prod. mineral eta energetikoak	-15,8	-30,2	-30,4	7,1	27,3	1.535.324
Produktu kimikoak	38,2	11,2	1,6	-15,9	-25,7	146.108
Plastikoa eta kautxua	38,8	17,3	-17,4	-32,2	-31,3	204.731
Papera	-7,0	-13,0	-27,5	-38,5	-7,8	79.568
Metal arruntak eta manufakturak	-6,2	-22,9	-22,7	-6,7	-2,5	811.449
Makinak eta tresnak	5,1	6,3	3,3	0,9	-10,9	599.760
Garraio materiala	23,6	10,0	-5,5	-3,8	-4,5	167.079
Bestelakoak	-6,3	-0,9	6,3	-15,7	-13,5	220.871

Oharra: Datuak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Lan merkatua


Lan merkatuak narriadurako joerari jarraipena eman zion 2012ko azken laurdenean eta enpleguaren galera areagotu zuen laugarren hiruhilekoan, ekonomiaren jarduerak erakutsi zuen ahultasunarekin bat eginez. Enpleguaren jaitsiera hori espero zena baino handiagoa izan zen, lan merkatua aztertzen duten erregistroek eta estatistikek erakusten dutenez.

Izan ere, Eustatek egiten dituen kontu ekonomikoek enpleguaren urte arteko beherakada %3,1ean kokatu zuten 2012ko laugarren hiruhilekoan, aurreko datua baino lau hamarren okerragoa. Datu horrek agerian uzten du, ekoizpenarekin gertatzen ari denaz beste, lan


merkatuaren narriadura ez dela galgatzen ari. Hala ere, gogoratu behar da enpleguak nolabaiteko atzerapenarekin erantzuten diela BPGaren aldakuntzei. Antzeko bilakaera erakutsi zuen Gizarte Segurantzako afiliazioak, laugarren hiruhilekoan %3,5 egin baitzuen behera, baina 2013ko urtarrilean eta otsailean urte arteko jaitsiera %4,0ra areagotu da. Dena dela, beherakada bizi hori 20/2012 Errege Dekretuak baldintzatuta dago, Mendekotasuneko Legearen profesionalak ez diren zaintzaileengan eragina duelako, indarrean sartu zenetik langile horien afiliazioa boluntarioa delako. Araudiaren aldaketak 8.500 lagunengan izan du eragina EAEn. Faktore hori zuzenduta, afiliazioaren jaitsiera oso hurbil egongo zen Eustatek enplegurako estimatu duen baliotik.

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak


Kontu ekonomikoak




Afiliazioa



BJA



BAI



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantza eta INE.

Kontu ekonomikoetako datuen arabera, ekoizpen arlo guztiek, salbuespenik gabe, enplegua murriztu zuten. Hain zuzen ere, eraikuntzak (%-10,9) zertxobait hobetu zuen bere egoera aurreko hiruhilekoekin alderatuta, baina, berriro ere, termino erlatibotan lanpostu gehien galdu zuen sektorea izan zen. Familiek kreditu bat lortzeko aurkitzen dituzten baldintzak gogortu izana eta inbertsio publikoaren murrizketak daude sektorearen narriaduraren atzean. Industriak, berriz, azken epealdietan marraztu zuen beheranzko joera areagotu zuen, bere langileen %2,4 galdu arte. Azkenik, zerbitzuek aurreko hiruhilekoetako ahultasuna biziagotu zuen, neurri handi batean lehenago aipatu den profesionalak ez diren zaintzaileen araudi aldaketaren ondorioz, baina baita administrazio publikoan bideratzen ari den langileen murrizketarengatik ere.

Enpleguaren bilakaerak eta ekoizpenaren aldakuntzak bide eman zioten produktibitatearen irabaziaz balio handi samarretan jarraitzeari, %1,4aren inguruan. Horixe izan zen, hain zuzen ere, azken urteko batez besteko balioa. Zoritzarrez, produktibitatearen irabazi horiek enpleguaren galeraren ondorioa dira eta ez, desiragarria izango zen bezala, ekoizteko prozesuetan lortutako eraginkortasuneko hobekuntzen ondorioa edo ekoizkineen balio erantsiaren gehikuntzarena. Izan ere, deigarria da produktibitatearen irabazi handiena krisia gehien pairatzen ari den sektoreak lortzea, hots, eraikuntzak, arlo horretako berrikuntzak nahiko apalak izaten direlako.

ENPLEGUA ETA PRODUKTIBITATE IRABAZIAK EKONOMIAREN ARLOETAN

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2011		2012		
			IV	I	II	III	IV
Enplegua guztira	-0,9	-2,5	-1,5	-1,8	-2,3	-2,7	-3,1
<i>Produktibitatea guztira</i>	1,3	1,4	1,7	1,4	1,4	1,3	1,4
Enplegua lehen arloan	-3,5	-0,1	-1,9	-0,2	3,1	1,4	-4,8
<i>Produktibitatea lehen arloan</i>	1,7	6,0	14,7	13,0	0,7	-3,5	13,9
Enplegua industrian	-2,2	-4,3	-2,6	-3,1	-4,3	-4,7	-5,3
<i>Produktibitatea industrian</i>	4,3	2,0	2,3	1,7	2,0	2,0	2,4
Enplegua eraikuntzan	-8,5	-11,8	-10,4	-11,9	-12,0	-12,3	-10,9
<i>Produktibitatea eraikuntzan</i>	2,8	6,3	5,6	6,4	6,4	7,1	5,1
Enplegua zerbitzuetan	0,6	-0,8	-0,1	-0,2	-0,6	-1,0	-1,4
<i>Produktibitatea zerbitzuetan</i>	0,2	0,5	0,9	0,6	0,6	0,4	0,5

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Lan merkatuaren inkestek lehenago aipatu diren estatistikek baino enplegu galera handiagoak estimatu zituzten eta, BJAren kasuan, landunen jaitsiera %4,6ra iritsi zen laugarren hiruhilekoa, aurreko epealdietan baino askoz ere galera handiagoa baita. Berririo ere, enpleguaren galerak eragin handiagoa izan zuen, proportzioz, gazteengan, desagertu ziren lanpostu asko aldi baterakoak izan zirelako, hain zuzen ere, kolektibo horretako langileek betetzen dituztenak. Horiek horrela izanda, gazteen enplegu tasa %14,1era jaitsi zen, serie historiko osoan aurkitu daitekeen baliorik apalena baita. Urteko batez bestean neurtuta, lana zuten gazteen ehunekoak 5,5 puntu jaitsi zen, 25 eta 44 urte bitartekoen kolektiboarena 2,4 puntu bakarrik murriztu zen bitartean edo 45 urtetik gorakoena 0,6 puntu baino beheratu ez zenean. Sexuaren arabera, enpleguaren galerak gehiago kaltetu zituen gizonak emakumeak baino, lehenengoak krisia gehien nozitzen ari diren jardueretan (eraikuntzan eta industrian) kontzentratuta daudelako. Hala ere, zerbitzuetan gertatzen ari den narriadura emakumeen enplegua kaltetzen ari da. Dena dela, urteko batez bestean neurtuta, gizonen enplegu tasa 2,6 puntu murriztu zen eta emakumeena, berriz, 1,1 puntu.

PARTAIDETZA, ENPLEGU ETA LANGABEZIA TASEN BILAKAERA

Ehunekoak

	2011	2012	2011	2012			
			IV	I	II	III	IV
Partaidetza tasa	56,2	54,9	55,8	55,4	55,4	54,7	54,1
- Gizonak	63,2	61,1	62,5	62,2	61,3	60,9	60,1
- Emakumeak	49,5	49,1	49,4	49,0	49,8	48,9	48,5
- 16 urtetik 24ra	30,3	26,1	28,1	29,2	27,5	24,4	23,1
- 25 urtetik 44ra	87,6	86,1	87,0	86,7	86,4	85,9	85,2
- 45 urte eta gehiago	40,2	40,0	40,4	40,0	40,2	40,0	39,8
Enplegu tasa	50,1	48,3	49,5	48,7	48,8	48,3	47,2
- Gizonak	56,1	53,5	54,9	54,4	53,9	53,5	52,2
- Emakumeak	44,4	43,3	44,4	43,4	44,1	43,3	42,5
- 16 urtetik 24ra	23,0	17,5	21,3	21,4	19,1	15,5	14,1
- 25 urtetik 44ra	77,1	74,7	75,9	75,1	75,1	75,0	73,4
- 45 urte eta gehiago	37,2	36,6	37,3	36,6	36,9	36,8	36,1
Langabezia tasa	10,8	12,1	11,2	12,1	11,9	11,8	12,8
- Gizonak	11,3	12,5	12,1	12,6	12,1	12,1	13,2
- Emakumeak	10,3	11,7	10,1	11,5	11,5	11,3	12,4
- 16 urtetik 24ra	24,0	33,3	24,2	26,5	30,8	36,5	39,4
- 25 urtetik 44ra	12,1	13,3	12,7	13,4	13,0	12,7	13,8
- 45 urte eta gehiago	7,5	8,5	7,6	8,6	8,2	8,1	9,0


Iturria: BJA (Eustat).

Enplegu ezak biztanleria aktiboen beherakada nabarmena eragin zuen 2012ko amaieran, eta partaidetza tasa gizonen artean (%60,9 hirugarren hiruhilekoan eta %60,1 laugarrenean) eta gazteen artean (%24,4tik %23,1era) gutxitu zen bereziki. Aldagai horren bilakaera oso gorabeheratsua izaten den arren, azken hiruhilekoetan, jaitsiera erritmoa etengabe areagotu zen, bi arrazoiengatik: immigranteen irteera handitu zelako eta etsipena hedatu zelako. Azken arrazoi horregatik langile askok lan merkatua utzi zuten, lanpostu bat lortzea ezinezkoa iruditzen zitzaielako. Gazteenek gehiago nabaritzen dute etsipen hori eta enplegua lortzeko aukerarik ezean, ikasketak luzatzen dituzte edo herrialdetik alde egiten dute.


Enpleguaren bilakaera negatiboak %12,8ra gorarazi zuen langabezia tasa laugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoetako jaitsiera txikien ondoren. Tasa hori 2000. urte amaieratik inoiz jaso den gorena da. Hain zuzen ere, langabezia tasa puntu oso bat igo zen aurreko hiruhilekoaren aldean, eta berdin igo zen gizonen artean eta emakumeen artean. Beraz, azken horien langabezia tasak (%12,4) gizonena (%13,2) baino txikiagoa izaten jarraitzen du. Berritoki ere, adierazi behar da langabezia tasarik altuena gazteena dela, %39,4ra igo baitzen, aurreko baliotik ia hiru puntu gorago. Urteko batez bestean neurtuta, gazteen langabezia tasa ia hamar puntu igo zen 2012. urtean.

Langabezia tasaren bilakaera

Euskadi



Europar Batasuna



Iturria: Eustat eta Eurostat.

Ingurunearekin alderatuta, Eustatek EAErako estimatu duen langabezia tasa (%12,8) INEk Espainiarrentzat epealdi bererako kalkulatu zuena (%26,0) baino nabarmen apalagoa da.

Diferentzia hori garrantzitsua da oraindik BJA inkesta erabili beharrean INEren estatistika erabiltzen bada, zeren eta institutu horren arabera EAE langabezia tasa txikiena (%15,9) duen autonomia erkidegoa da. Hala ere, bai inkesta batek bai besteak egiaztatzen dute EAEko egoera Europar Batasunaren batez bestea (%10,7) baino okerragoa dela eta lurralde horrekiko diferentziala igo zen azken hiruhilekoan.

2012. urtean zehar, enplegua arautzeko dosierren kopurua nabarmen areagotu zen, lanpostuak murrizteko joeraren ondorioz. Hain zuzen ere, dosierren kopurua %69,0 igo zen eta, beraien eragina pairatu zuten langileena, berriz, %69,6. Joera horrek jarraipena izan du aurtengo lehen hilekoetan ere. Enplegua arautzeko modalitate guztiek, salbuespenik gabe, aurreko ekitaldian baino erregistro handiagoak jaso zituzten arren, adierazi behar da, ohar positibo gisa, kontratua amaitzeko dosierrek kaltetutako lagunen kopuruak pisua galdu zuela iazko bigarren erdian. Izan ere, lehen sei hilekoan 2.113 langile zeuden kontratua amaitzeko dosier baten azpian eta bigarrenean, berriz, 1.223 bakarrik.

ENPLEGUA ERREGULATZEKO EUSKADIN BAIMENDU DIREN DOSIERRAK

	2011	2012	2012				2013
			I	II	III	IV	Urtarrila
Dosierren kopurua	1.560	2.636	644	744	518	730	348
Eragindako langileak	22.072	37.429	9.811	9.431	8.437	9.750	4.198
<i>Dosier mota</i>							
- Lanaldia murriztekoa	2.203	5.466	1.157	1.716	933	1.660	961
- Behin-behineko etetea	17.991	28.627	7.721	6.535	7.055	7.316	2.897
- Kontratua amaitzekoa	1.878	3.336	933	1.180	449	774	340

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

Lanbide egoeraren arabera, enplegu galera, bereziki, besteren kontura lan egiten duten langileengan gauzatu zen, 2012. urtean autonomoen kopurua %3,1 gehitu zen bitartean. Aldi baterako kontratua zutenen ehunekoa hirugarren hiruhilekoan zegoena baino txikiagoa izan zen eta %21,8an kokatu, nahiz eta urteko batez bestean aldi baterakotasuna zertxobait igo zen. Ez da erraza jakitea lan erreformak eraginik izan ote duen laugarren hiruhilabeteko jaitsiera txiki horretan edo enpresek lehen urtean iraitze saririk ordaindu gabe langileak kaleratzeko daukaten erraztasunaren ondorioa den. Azken arrazoi honengatik izan balitz, enplegua berriro sortzen hasi bezain laster, aldi baterakotasun tasak gora egingo du berriro.

ERREGISTRATUTAKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA

	Kontratuak		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2011	2012	2008	2009	2010	2011	2012
Guztira:	704.152	657.403	-5,2	-17,8	5,6	2,2	-6,6
Lanaldi osoko mugagabeak	14.838	15.643	-8,7	-32,0	-7,3	-13,4	5,4
Obra edo zerbitzukoak	152.614	134.609	-11,4	-21,1	8,1	4,0	-11,8
Abagunekoak	170.103	148.877	-9,4	-28,0	11,1	-2,9	-12,5
Lanaldi laburrekoak	246.635	249.296	-1,3	-9,7	5,0	5,0	1,1
Prestakuntzakoak (*)	5.367	4.634	-13,0	-37,7	8,1	2,7	-13,7
Besteak	114.595	104.344	7,9	-6,6	-1,9	4,8	-8,9

(*) Prestakuntzako kontratueta, lanaldi laburreko praktika kontratuak sartzen dira.
Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, SEPEko datuetan oinarrituta.

Azkenik, SEPEk kontratuaren bilakaeraz aurkezten duen informazioari buruz, adierazi behar da hauek berriro gutxitu zirela 2012ko amaieran (%-6,6), aurreko bi urtean sinatu ziren kontratuaren kopuruak bilakaera positiboa erakutsi ondoren. Hala eta guztiz ere, 2012. urte osoan adostu ziren kontratu mugagabeak %13,1 gehiago izan ziren 2011koak baino, batez ere lanaldi laburreko kontratu mugagabeak (%25,6), lanaldi osoko kontratu mugagabeak (%5,4) baino askoz gehiago hazi baitziren. Dena dela, kontratu mugagabeen pisua kontratazio guztian oraindik oso mugatua eta urte osoan sinatu ziren kontratu guztien %4 baino apur bat gehiago bakarrik dira.

ERREGISTRATUTAKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA

	2010		2011		2012	
Ohiko mugagabeak	12.499	1,81	11.870	1,69	15.107	2,30
Mugagabe berriak	4.431	0,64	2.793	0,40	396	0,06
Lanaldi osoko beste mugagabeak	206	0,03	175	0,02	140	0,02
Lanaldi osoko mugagabe	17.136	2,49	14.838	2,11	15.643	2,38
Lanaldi laburreko mugagabeak	10.566	1,53	9.170	1,30	11.520	1,75
Mugagabeak guztira	27.702	4,02	24.008	3,41	27.163	4,13
Kontratu berriak guztira	688.717	100,0	704.152	100,0	657.403	100,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, SEPEko datuetan oinarrituta.